

ZENBAT BURU

Arnaitz Gorriti

ERREPORTAIA

Datozen hautes-
kundeen azter-
keta

GEHIGARRIA

Zaharrak Berri

BERBETAN

Jose Luis Arana

Txoko

Taurinoaren presi-

BARREN

1998ko urriaren 16a
V. urtea - 252. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Urriaren 22tik aurrera
Óngarri Zine Klubaren
emanaldi berriak



Politika 'in person'



ARNAITZ GORRITI

Politika: Herrien edo estatuen gobernurako arte edo zientzia. Ezin uka politikari ona izateko eta herri edo estatu bat ganoraz gobernatzeko, artea eta zientzia derrigorrezko elementuak direnik. Bestalde, guk ere arte ugari beharko dugu egunotatik aurrera alderdi politikoen dohaineko telebista saioei ihes egiteko, kaleetako kartelak ez irakurtzeko, irratietako analista orojakileen axiomak sahiesteko, makina bat inkestaren emaitzak ez jakiteko... Gainera, aurten behingoz, "calma chicha" delakoa nagusi izango da gugan - Amen-. Horrela, nahi duenak nahi duenari emango dio botua -nahiz eta gure helburu bakarra ahalik eta arinen amaitu dadin izan-. Behin botu guztiak zenbatu eta gero, politikariek eta berauen partiduek beren usadio politikoak, nola bakarrean hala beste norbaiten laguntzaz, aurrera eraman ahalko dituzte...

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barka, baina deprimitzen ari naiz hau idazten dudana bitartean. Izan ere, orain arte zera idatzi baitut: partiduek zenbat eta botu gehiago jaso, orduan eta ahalmen handiagoa izango dutela nahi dutena egiteko lau urtetan zehar.

Agian norbait haserretu egingo zen eta "ni ez naiz politikariren eta hauen partiduen panpina!" esango luke. Hala eta guztiz ere, erantzun galdera hauei: zer dela-eta kaleko

jendeari deritzogu 'base' edo 'oinarria'? Zergatik da hain zaila politikariren hizkera ulertzea? Zer dela-eta dira hain trinkoak partidu politikoen iritziak? Zein arrazoiengatik du politikak hain izen txarra gugan? Zergatik (ETAren treguak akaso lagun lezake baliozko botu kopurua handitzeko) egoten da beti hainbeste abstentzio??

Herri bat, Espainia, Frantzia, Suedia... ez dute botuek osatzen, pertsonak baizik. Demokrazia ere lau urtetik behin baino gehiagotan eta hitzetan baino gehiagotan erabili beharrekoa da, eta baita "gehiengoaren diktadura" baino gehiago ere. Emaitzak, egia esan, berdinberdin dio, hauteskundeetan gertatzen dena gertatzen dela, gizakiok hemen jarraitu beharko baitugu.

Dena dela, ez dut uste politikariak "lapurrak" baino ez direnik. Ziurrenik politikan denok sinetsiko genuke benetan zer-

bait eskainiko baligute. Gure botuek herri bat, bi, zortzi... egiteko balio lezakete, baina berauek izen-abizenak dituzte, nahiz eta sekretuak izan. Politika/Demokrazia pertsonen zerbitzura jartzen denean ez da hauteskunderik beharko. Izan ere, orduan eraikiko baigenuke guztiok nahiko genukeen hori: **GIZAKIEN HERRIALDEA**. Ez botuen herrialdea; ez botanteen herrialdea, Euskadi edo Espainia izan.

"Politika/Demokrazia pertsonen zerbitzura jartzen denean ez da hauteskunderik beharko. Izan ere, orduan eraikiko baigenuke guztiok nahiko genukeen hori: GIZAKIEN HERRIALDEA"

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:

barren@topagunea.jalgi.com

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Miren Moreno

MAKETATZAILEA

Bea Asola

ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

GERENTZIA

Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegia,

Ana Artetxe, Jose Mari Bastida,

Mari Karmen Elorza,

Maider Elustondo, Jon Eugi,

Koldo Galdona, Aintzane Garate,

Jon Garate, Juanito Gorostiza,

Arnaiz Gorriti, Alberto Iriondo,

Iñaki Jaio, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Nieves Loidola,

Ongarri Zine Kluba, Asier Orbea,

Julian Segundo, Jon Suarez,

Anjel Ugarteburu, Iban Urizar,

Miren Vallejo.

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlearitzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



'Haurrak entrenatzaile faltan?' galderari erantzuna

Aurreko asteko BARRENe (251 zkia.) 'Eskutitzak' atalean, idatzi oso interesgarri batekin egin nuen topo. Elgoibartar batek bere kezka azaltzen zuen DBH 1. mailako neskek BARRENe entrenatzaile bat bilatzeko iragarkia irakurri ondoren. Gai honez kezkatzea interesgarria eta beharrezkoa iruditzen zait, gurasoen aldetik batez ere, baina benetan kezkatzeak, nahitanahiez informatu beharra eskatzen du. Hortaz, gaiari buruzko informazio falta ikusirik, 98/99 Eskola Kiroleko Koordinatzaile Orokorra naizenez, kezka hau erantzuten saiatuko naiz.

Elgoibartar honek, gai honez nor arduratu behar den proposatzean ondo bideratzen du bere ideia. Eskola Kirola proiektua, berak proposatzen duen bezala, ikastetxe, klub edo kirol elkarte eta Kirol Patronatuaz dago osaturik, baina aspektu garrantzitsu bat ahaztu zaio: gurasoen kolaborazioa. Kolaborazio hau ez da beraien seme-alaben taldeak entrenatzeraz mugatu behar, horretarako prestatuak dauden monitoreak egokiagoak baitira entrenatzaile izateko. Gurasoek, aita edo amaren papera bete behar dute eta errendimenduaren gainetik, haurren hezkuntza eta garapen integrala bultzatu, Eskola Kirolaren helburuen garapenean lagunduz. Honetan datza benetako kolaborazioa. Adibide bat jartzekotan, Eskola Kirolaren programaren helburu nagusienetarikoa bat honako hau litzateke: aukeratze prozesua eta errendimendua alde batera utziz, eta lehiaketara bakarrik zuzendua izan gabe, ikaslearen kondizioa edozein delarik, Elgoibarko (baita Mendaro, Murtiku eta Debako ikasleei praktika kirol-

anitzta edukitzeko aukera eskaintzea.

Eskola Kirolaren funtzionamendua laburki azaltzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak diru laguntza ematen du. Kirol Patronatuak, diruaz parte, beste kolaboraziorik ere eskaintzen du: instalazio municipalak utzi, klub eta ikastetxeen arteko interlokutore izan... Baina erantzukizun handiena ikastetxeek dute, horretarako ikastetxe ezberdinen, Kirol Patronatuaren eta klubaren arteko erlazioa bideratuko duen Koordinatzaile Orokorra ere izendatuko delarik.

Honela, haurrak sustapen jardueraz gain (mendira irteerak, igeri egiten ikaslea, izotz irristaketa,...) heziketa eta jolas izaera duten lehiaketa jardueretan ere parte hartuko du: banakako kirolean (txirrindularitza, atletismoa,...) zein taldekoetan (eskubaloia, futbola eta saskibaloia). Normalean, DBH 1. mailako neska hauek bezala, ikasle talde bakoitzak taldekako hiru kirolean hartzen du parte. Horregatik talde bakoitzarentzat hiru kirolearako entrenatzaile bat jarri beharrean, Eskola Kirola programako arduraduneri askoz ere egokiagoa iruditzen zaie, eskubaloia, saskibaloia eta futboleko klubekin elkarlanean, partiduetako epaile lanaz gain, klub bakoitzak bere kirolari dagokion entrenamenduak zuzentzea. Honela, ikasleei dagokien kirolean astean bi entrenamendu edukitzeko aukera izango dute. Entrenamendu hauek klubetako monitoreek zuzenduko dituzte eta klubaren instalazioetan egin ahal izango da. Bestea aldiz, bakoitzaren ikastetxean izango da, klubetako monitoreak ikastetxeetara joango direlarik.

Honenbestez, lasai egon zintezke Elgoibarko neska-mutilen etorkizuna ez baitago airean zintzilik, zure (guraso bezala) eta gure eskuetan baizik.

Oier Gurrutxaga
Eskola Kirolaren
Koordinatzaile Orokorra

BARRENe ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**

◆ Emakume bat baino gehiago etorri dira gauza bezaz kezatzeko: “Urasandiko parkean moketa moduko bat dago eta egun hauetan egin duen euritearekin mela-mela eta zikin-zikina dago, eta gainera, oso labainkorra eta min hartzeko moduan. Norbaitek zeozer egiteari beharrezkoa dela iritzi diogu”.

◆ Beste emakume batek **Herrri Eskolara** doan bideskaren egoera salatu nahi du. Egunero jende mordoska ibiltzen da bertatik eta bellarra oso hazita dago. Ez al du Udalak moztu behar?”

◆ **Mutil batzuek Urasandirako sarrera** “oso gaizki” dagoela salatu nahi dute.

“Autoaren barrenak lurra jotzen du eta nahiko maniobra arriskutsua egin behar da errepedera sartzeko zein irteteko. Ez al dago konpontzeko asmo edo proiekturik?”.

◆ Emakume batek deitu digu **Plaza Txikiko** parkearen egoera “penagarria” dela esateko. “Bi kolupio daude eta nahiko egoera kaxkarrean. Hala ere, txarrean da txirristada azpian zikin-keria mordoa egoten dela eta uda partean batez ere, usaina sortzen da. Gainera, ume asko txirristada azpira sartzen dira, zikin-keria artera. Kolupioak konpontzeko asmorik ez badago, gutxienez zikinak ken ditzatela “



◆ Mazzantiniren jaiotetxeko bizilagun baten kexa da ondorengoa: “**Maria Isabel Oteiza** naiz eta honako kexa hau zuzendu nahi diet ‘gaueko margolari ausartei’, egun ez baitira ausartzen, aurpegia erakutsiz, gaueko pintada eta tomate zein arrautza jaurtiketak egiten. Horiei ‘koldarrak’ deitzen zaie. Zeren errudun gara Mazzantini bera edo ni neu, gaur egun etxebizitza horretan bizi naizen emakumea? Zein triste den besteen inbiditan bizitzea!”

BAI, ESAN?



Mikel Cornejo

Orain arteko dei gehientsuenak gaurkotasuneko gaiekin zerikusia zuten deiak izan badira, aste honetakoa herritar bati zuzenean lotuta dago. Aurreko astean **Mikel Cornejo** **BARREN** lagatzen zuela esan genizuen. Baina **BARREN** ez da lagatzen duen bakarra. Mikel, Elgoibarren duen bizimoduari agur esan eta Maroko aldera doa etapa berri bati ekiteko.

- **BARREN, Ekekei, 6NEMEN9, lagunak, familia,...** proiektu eta jende asko laga behar dituzu **Elgoibarren**. - Bai eta hau galdetzen badidazute pena ematen didala erantzungo dudala pentsatzen duzuelako izango da. Ba egia da, pena ematen dit baina gauzak egin behar diren momentuan egin behar dira. Horrelako gauza bat gaztea zarenean egiten duzu. Ezin zara geratu lagatzen duzunak pena ematen dizulako.

- **Zeren bila zoaz Marokora?** - Kontinente eta kultura ezberdin batera noa, beste gauza batzuk ere badaudela ikusi nahi dudalako. Elgoibarren oso gustura egon arren, kanpoan gauza asko dago ezagutzeko eta hemen bezain gustura senti naiteke beharbada.

- **Asko kosta al zaizu erabakia hartzea? Damutzeko beldurrik?** - Ez banintz joango damutuko nintzateke. Erabakia egun batetik bestera hartu nuen baina denbora pasatu da eta erabakia bere horretan mantendu dut. Giroz aldatzeko beharra sentitzen nuen.

- **Marokoko zein aldetara zoaz?** - Marokoko iparralde-ra noa lehenengo turismo piska bat egitera. Gero, hegoaldera joango naiz Tinerhir izeneko oasis batera. Bertako bizimodua egiteko asmoa daukat eta niri gustatzen zaizkidan gauzak egin: margotu, idatzi, ... Aurrerago lana topatzen saiatuko naiz eguneroko bizimodua ateratzeko.

- **Izango duzu gure artera bueltatzeko asmorik, ezta?** - San Bartolome jaietarako ziur baietz. Hala ere, lehenago izan daiteke. Alde horretatik ez daukat asmo finkorik. Hala ere, ziur nago Elgoibar faltan botako dudala.



Anchústegui s.a.
ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa: Antonio Arrillaga, 6-8 behea
83 P. K. - 20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 06 92
Faxa: 943 74 37 11

Biltegia: Olaso industrialdea
Olasope, 5
20870 - ELGOIBAR
Tel: 74 20 38 - 74 23 71



Karkizano
San Franzisko 12-14 - Tel. 943 74 05 49



Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

Su-etenaren hautes-

Urriaren 25ean izango dira Euskal Autonomi Elkarteak hauteskundeak. ETAk aldarrikatutako su-eten mugagabeak, Lizarrako Akordioak, Euskal Herritarroren sorrerak, PPren Gobernuaren eta Espainiako justiziaren danbateko errepresiboak, PPko zinegotzien aurka ETAk egindako atentatuen ondorioz sortutako giro sozialak eta abarrek ukitu berezia eman diete aurtengo hauteskundeak. Izan ere, Gasteizko Legebiltzarreko 75 eserleku daude jokoan baina hauteskunde hauetan hori baino askoz gehiago bozkatzeko dela nabaria da. Alde guztietan entzun eta irakur daiteke egunegun alderdiek esaten dituztenen oihartzunak, bai euskal herritarren artean eta baita Espainiakoen artean ere. Urriaren 25ean zer gertatuko zain gaude. Astebete falta denean, Alderdi politikoen ordezkariengana jo dugu eta hiru galdera luzatu dizkiegu. Hona hemen erantzunak.

1- Urriaren 25eko hauteskundeak bereziak direla uste al duzu? Une historikoan al datoz?

2- Bi bloke (nazionalista eta espainolista) sortzeko arriskua aipatzen da han eta hemen. Zein da zure iritzia gai honen inguruan?

3- Esaiguzu hauteskunde hauetarako aldarrikatutako dituzuen mezurik garrantzitsuenak zein diren.

1- Abertzaleontzat gure lehendakaria aukeratzeko eguna beti izango da berezia. Hauteskunde hauek Euskal Herria une erabakiorra bizitzen ari denean datoz, horregatik, hurrengo lehendakariak bake prozesuan paper erabakiorra jokatu beharko du, bera izan beharko da prozesua bideratzen duena.


2- PP eta PSOEn montaje hutsa da. Zeharo galdurik aurkitzen dira, horregatik momentuz prozesu honetatik kanpo gelditzea aukeratu dute. Honen ordez, eta kanpotik etorritako jendeari beldurra sartzeko asmoz, abertzale frentearen ipuina kaleratzen ari dira.

3- Euskal Herriarentzat gauza asko egin ditugu eta asko dago egiteko. Bigarrenik, Euskal Herria plurala delako gure proiektuak ez du ezer baztertzeko. Hirugarrenik, bakea lortzea posible da. Irtenbidea dagoela sinesten badugu, aurkituko dugu.

1- Dudarik ez. Pasa ditugunak kontuan izanda, egoera itxaropentsua dela behintzat argi dago. Batzuentzat esperantza garaia da, eta beste batzuentzat kontra egiteko argudioak bertan behera geratu dira.

2- Bloke horiez alderdi espainolista ari dira hitz egiten. Ez dakit nondik atera duten mailetak egiteko kontua, badi-rudi irudi hori sinestarazi nahi dietela herritarrei botuak erenganatzeko eta jendea engainatzen ari dira. Besteok guztiontzat izango diren planteamenduak bakarrik ditugu.

3- Gure lehen esaten duen bezala, "herri aurrerakoia guztiontzat lortzea" da helburua. Herri izatea, gure hizkuntza, izaera, autodeterminazio eskubidea... aldarrikatuz. Aurrerakoia, herri izateaz gain ideia aurrerakoiak defendatuko ditugulako. Guztiontzat izango den herria nahi dugu, hemen bizi garen guztiontzat izango den herria.



Isaac Loiola



Ales Arrieta





Arnaldo Otegi

EH

Euskal Herriarrok

1- Garbi dago une historikoa bizitzen ari garela; ilusioz eta esperantzaz bizi ditu Euskal Herriak une hauek. Datorrena, euskal nazioaren errekonozimendua eta burujabetasunaren legegaldia izanen da, dudarik gabe.

2- PSOE eta PP gerra zikina egiten ari dira, beraiek osatzen baitute bloke bakarra: antidemokratikoen blokea. Euskal Herrian demokraziak abizen ezagunak ditu: lurraldetasuna eta autodeterminazio eskubidea.

3- Euskaldunok gure etorkizunaren jabe izan nahi dugu, Aturririk Ebrora. Euskal Herria ezkerretik eraiki nahi dugu, burujabetza nahi dugu, enplegua sortzeko eta gizarte justuagoa eraikitzeko. Euskal Herria denen artean egin behar dugu, Lizarra-Garazin kontsentsurako esfortzu izugarria eginen dugu. EH botatzea, soluzioa eta askatasunaren aldeko botoa da.

1- Alderdi Sozialistaren ustez, gizarte hainbeste aldaketa garrantzitsu bizi ditugun garaian, Euskal Herriaren historia markatuko dute hauteskunde autonomiko hauek. Izan ere, hauteskunde hauen ondorioz eratuko den Gobernuaren esku egongo da askatasunean eta demokrazian pakea lortzea.

2- Sozialistok gizon eta emakume guztiontzat izango den herria nahi dugu. Blokeen kontra gaude eta argi utzi dugu, azken urteotan Gobernuan nazionalistekin parte hartu baitugu.

3- Alderdi Sozialistak hiru helburu nagusi lortu nahi ditu: bakea, proiektu integratzaile eta tolerante batean oinarritua; enplegua sortzea, gizarte gehien kezkatzen duen arloa baita, eta ongizatearen estatua sakontzea, hain zuzen eskuin gero eta gehiago gutxitzen ari den ongizatea.

1- Bai, hauteskunde hauen emaitzen ondoren konklusio asko aterako baita. Une historikoa ere bada: sekula ez gara hain gertu egon irtenbide negoziatua lortzeko eta herritarrok ilusioz hartu dugu ETAren treguarekin ireki den prozesua.

2- Zenbait alderdi eta komunikabidek interesa dute ideia hori bultzatzeko, euren ideologiarekin bat datorren jendea mobilizatu eta Euskadiren kontrako argumentuak izateko, kontuan izan gabe herri honen beharrak.

3- Irabazi ekonomikoak kalitatezko enplegu establea sortzen inbertitu; ordu estrak eliminatu eta 35 orduko lanastea.

Babes soziala bultzatu marginazio poltsak ekiditeko.

Kontsentsua bilatu Euskadik duen arazoari irtenbide politiko eta negoziatua emateko, kontuan izanik Euskadik autodeterminaziorako eskubidea duela.



J. Ignacio Ausin



1- Ez dira hauteskunde normalak. Euskaldunok jokoan daukagu duela 20 urte finkatu genuen elkarbizitzako modua: Estatutua eta Konstituzioa. Herritarrak animatu nahi ditut parte har dezaten, botu bakoitzaren bidez herritarrek ETARI hiltzeari uzteko esango baitiote.

2- Bloke Nazionalista Lizarran eratu zuten EAJ-PNV, EA eta HBk EB-IUren babesarekin. Guk guztiona den herrialde bat defendatzen dugu, demokraten artean partekatutako proiektu batean oinarritzen dena, nazionalistak eta besteok lurralde honetan gustura bizi gaitezten.

3- Hiru gauza garbi geratu behar dira: Konstituzioa eta Estatutua haustura mintzagai den unean datoz hauteskundeak. Bestetik, blokea Lizarrakoek sortu zuten. Hauteskunde hauetan, herritarrek autonomismoa edo independentismoaren alde botatu beharko dute.



J. Manuel Herrero



Juan Carlos Avian



Zer iruditzen zaizu 'Mazzantini Txoko Taurino'a sortzea?




M. JOSE LEIARISTI
42 urte, etxeoandrea

Ba ondo, herritar baten izena berreskuratzea beti dao ondo. Oin, egixa esanda, neri zezenketak ez jataz ondo beixantzen, nahiz eta bestiena errespetau.



AITOR LAUZIRIKA
32 urte, irakaslea

Printzipioz ez nago ados zezenketak eta holako historiexekin. Animalixak sufridu eitzen dau eta ezin leike justifikau holako gauza bat jendiak ondo pasatzen dabalako.



ION ZUBIAURRE
16 urte, ikaslea

Ondo dao Mazzantinin alde zeozer itxia baina zezenketak ez jataz gustatzen. Ez da Elgoibarko ohixura bat baina errespetatzen dot.



LUIS CARLOS ARAYA
36 urte, injineru tekniko elektronikoa

Zezenketen gaia ez zait gustatzen, pena ematen didate zezenek baina ez diot ezer esango Elgoibarren zezenketaren bat antolatu nahi duenari.



PURA BENGOETXEA
62 urte, etxeoandrea

Neri lehen asko gustatzen jatazen baina oin bat ere ez, ze zezena hiltzera juten dia, sufriaraztera. Ostantzian, zezenketen jai girua beti gustau izan jata.



SORHUNDE JUARISTI
34 urte, irakaslea

Ni ez naiz zezenketen zalia baina bakoitzak bere zaletasunak dauzka eta errespetau in bihar dia. Esate baterako, kontrako pintadak itxia ere ez dao ondo.



Kristina eta Markos



*Hemendik
Haurrera biziko
dituzuen une guztiak
ezkontza egunekoak
bezain politak izan
daitezela.*

Zuen lagunak

ISPILUARI BEGIRA



**Sorgintxo
Erropa dendakoa**

**ALICIA
OSORO**

- Moda jarraitu ala egokitu?

Biak, batzuetan jarraitu eta bestetan egokitu.

- Umeak sorgintxo xamarrek al dira?

Bai, denak gainera.

- Eta zu? Ni ere piskatxo bat bai.

- Zer dute haurrek helduek ez daukatena?

Zoriontasuna agian.

- Zer egingo zenuke ume baten irriparraren truke?

Egoeraren arabera gauza ezberdinak egingo nituzke. Afrikako haur bat alaitzeko janaria, dirua edo arropa emango nizkioke.

- Berriro umea bazina...

Ez litzaidake berriz umea izatea gustatuko.

- Zer ikusi nahiko zenuke sorgintxo baten erratz hegalaritik? Mundu osoa.

- Marrazki bizidunak atsegin al dituzu?

Bai, asko, gehien Tom eta Jerry xaguenak.

- Zein egoeratan sentitzen zara zu ume bat zapata berriekin bezain pozik? Erropa berria erosten dudanean.

- Zein da ume bati sekula jantziko ez zenioken erropa? Erropa oso klasikoa ez nioke inoiz jantziko.

- Zer konplementu jarriko zenioke Elgoibarri haurren gustukoago izan dadin?

Parke polit bat, belar eta zuhaitzekin.

- Hobe al da zahartzarora iristea beti umea izatea baino?

Bai, baldin eta zahartzarora heldutasunez iritsi ezker.

- Egin duzun azken umekeria? Ezkontzea.

- Gordeta al daukazu umetako jostailurik?

Ez, bat bera ere ez.

- Eta erroparik?

Bai, erroparen bat bai. Oso txikia nintzeneko mantoi-
ren bat edo gordeta dauka nire amak.

- Pazientzia handia behar al da umeekin?

Bai, eta batez ere gurasoek.

- Umeen inozentzia ala ingenuitatea?

Ezberdintasun askorik ez dago bien artean, baina bat aukeratzekotan, inozentzia.

Irati Agirreazaldegia

KEMEN Belardenda



*Estuasuna, antsietatea, depresioa,
lo eza, tabakismoa, loditasuna,
fobiak,... tratatzen laguntzen dugu.
Zatoz, ez zara damutuko!*

**NATUROPATA - Programazio neurolinguistikoa
(Practificioner eta Masterra) - MASAJEA - REIKI
- Osatze naturalaren USUI sistema**

San Bartolome 25 · Tel: 943 74 40 31 · ELGOIBAR

Kidea



ASESORIA ETA CONSULTING

- Kontabilitatea - Lana - Fiskala - Aseguruak -
INBERTSIO PROIEKTUAK

Ibaitarte industrialdea, 5 - 169 P.K. - Tel: 943 74 08 91



JOSE pinturak
(Txema)

**Mota guztietako pintura
eta enpapelatuak.
Zoluak, moketak, sintasola,**

San Bartolome, 28-1 ezk · Tel: 943 74 12 55 · Mobila: 929 44 23 14

● Gurasoentzako euskarazko klaseak

Elgoibarko Udalak gogorazi nahi du oraindik bada-goela izena ematerik gurasoentzako euskara ikastaro berezietan. Hiru dira ikastaroak: sakontzen, euskaraz ondo moldatzen diren gurasoentzat (azarotik martxora, 7.500 pta.); lantzen, euskaraz hitz egiteko erraztasuna galdu duten euskaldun zaharrentzat eta oraindik erraztasunik ez duten euskaldun berrientzat (azarotik martxora, 7.500 pta.) eta euskalduntzen, euskaraz gutxi edo oso gutxi dakituentzat (azarotik ekainera, 15.000 pta.). Ikastaro hauez gain, pare bat astez luzatuko diren modulo bereziak ere izango dira ipuin kontaketa eta jolas eta kantuei buruzkoak. Izen-ematea Udaleko Euskara Zerbitzuan edo Ikastola, Herri Eskola eta Pilar ikastetxeetan egin daiteke urriaren 23an baino lehen.

● Kokoe Komiki Elkarte Internet-en

Kokoe Komiki Elkartetik aditzera eman digutenez, aurrerantzean elkartearen historiari buruzko informazio guztia Internet-en zabaldu duten web orrialdian aurkitu ahal izango da. Honez gain, Kokoek kaleratzen duen fanzinearen berri eta asteburuan hasiko diren jardunaldien berri ere jaso daiteke. Momentuz informazio gehiena gaztelaniaz jarri badute ere, “ahal bezain pronto informazioa euskaraz, ingelesez eta frantsesez agertzea nahi dugu”. Posta elektronikoen helbidea: kokoe@bezeroak.euskaltel.es. Web orriaren helbidea: mipagina.euskaltel.es/kokoe.

Don Severiano Mendizabal hil da

Mutrikuar honek 40 urte eman ditu apaiz Elgoibarren

Astelehenean, hilak 12, 88 urterekin hil zen Mutrikun Don Severiano Mendizabal apaiza. Azken urteak bere jaioterrian eman zituen Don Severianok, nahiz eta ia bizitza osoa Elgoibarren egin zuen. Elgoibarrera etorri aurretik Itziarren egon zen apaiz. Handik Madalako elizara etorri zen, mojen kaperau gisa. Ondoren, Parrokian hasi zen apaiz lanetan. Elgoibarren oso ezaguna zen, 40 urte inguruz izan baitzen apaiza. Jubilatuta ostean, Elgoibarren bizitzen jarraitu zuen. Duela urte batzuk, bere etxea bota eta berria egiten zuten bitartean, Mutrikura joan zen arrebaren etxera. Elgoibarko etxea berregin zutenean eta bizitzen hasteko prest zegoenean,



ez zuen Elgoibarrera etortzeko animorik izan, osasun aldetik justu xamar baitzebilien. Bere arimaren aldeko hileta elizkizuna Mutrikun egin zen asteartean. Bestalde, gaur, hilak 16, arratsaldeko 19:00etan Don Severianoren aldeko meza izango da Parrokian.

Gizon lasaia

Don Severiano ezagutu zutenak bat datoz gizon lasaia zela esaterakoan. Ahots sakona zuen eta euskaldun jatorra zen. Gerra sasoiaren batera eta bestera ibili behar izan zuen anaiari heriotz zigorra ezarri baitzioten. Beti sotanarekin ibiltzen zen eta azken aldiaren txapela ere jaxten zuen.

Luis Mazzantini torero elgoibartarraren omenezko Txoko Taurinoa inauguratu zen zapatuan

Zezenketen aurkako pintadak egin dituzte 'Txoko'aren egoitzan

Errosario kalean jaiotako Luis Mazzantini Egia toreatzailearen izena daraman 'Txoko Taurinoa' ren inaugurazio ekitaldia izan zen aurreko zapatu goizean. Santa Klarako komentuan meza entzun ondoren, toreatzaile elgoibartarra jaio zen Errosario kaleko etxera hurreratu ziren aurrekoa dantzatu zelarik. Ekitaldiari amaiera emateko, partehart-

zaile guztiak Estazio tabernara abiatu ziren. Bertan Ana Santolaya kultura zinegotziak inaugurazioaren omenezko plaka desestali zuen. Txokoaren presidentearen ustez, “Mazzantiniaren irudia berreskuratu beharra dago. Gure asmoa Elgoibarko giro taurinoa indartzea da eta 1999ko San Bartolomeetan nobillada bat antolatu nahi genuke”. Honez gain, herriko kale bati toreatzailearen izena jartzea proposatuko diote Udalari.

Inaugurazio ekitaldiak izan zuen alde tristerik. Aurreko gauean, zezenen jaiaren aurka dauden zenbait pertsonak, arrautzak eta tomateak jaurti zituzten Mazzantini jaio zen etxeko plakaren kontra eta Estazio tabernan pintadak egin zituzten. Presidenteak esan duenez, “era guztietako iritziak daudela onartu behar da, baina ez gaude ados jokabide honekin. Gutxiengo bat dira eta eurekin bizitzea beste erremediorik ez dugu”.



IMHko erreminta makinaren museoa urte amaierarako prest

San Roke auzoan kokatua dagoen IMH ikastetxearen erreminta makinaren museoa prest egongo da urte amaierarako. Proiektuaren arduradunak azken ikutuak ematen ari dira. Izan ere, prozesuko unerik zailenean dabilta IMHko arduradunak: museoak bilduko dituen makinak aukeraketa eta muntaiak, alegia. Asmoa urte amaierarako lanak bukatuta edukitzea bada ere, Pedro Ortuondo museoaren zuzendariaren hitzetan, "ez dugu datak direla-eta presiorik nahi, hobe da lana ahalik eta ondoen egitea, nahiz eta epea ez errespetatu". 400 metro karratuko azalera duen eraikin berriaren lanak amaitu eta gero, 1920. urteko tailer bat erakutsiko duen tresneria martxan jarriko dute. Honez gain, sektore honen historia guztia biltzen duen tresneria ere ikusgai egongo da. Museoa eraikitzeko proiektuan IMHk, Udalak, AFMk eta 50 bat enpresak hartu dute parte.



● Nitxoan hustuketa

Udaleko Ongizate Sailak jakinarazi nahi du 1988 urtean hil zirenen nitxoak hustuko direla datozen egunotan. Gai honi buruz informazioa jaso nahi duten herritarrek 943 74 10 08 zenbakira dei dezakete.

● Urrezko ezteiak egin dituztenei omenaldia

Jubilatu Etxeak urtean zehar urrezko ezteiak egin dituzten bikoteak eta 80 urtetik gorako ezkonkideak omenduko ditu abenduaren 18an. Urtero bezala, opariak banatuko dituzte eta lagun arteko bazkaria egingo da. Bazkarira zentratu lagun joango diren lehenbailehen jakitea komeni denez, interesatuek izena eman dezakete dagoeneko Jubilatu Etxeko zuzendaritzan goizez. Izena ematerakoan bazkide txartela, NAN eta Familia Liburua aurkeztu.

● Sabino Sorondo gogoratuz

Oraingoan ere, hil berri den beste elgoibartar baten berri eman behar dugu. Sabino Sorondo orain dela egun gutxi hil da Donostian, 82 urte zituela. 14 urtetik Donostian bizi zen arren, jaiotzez elgoibartarra zen eta oso harreman estua mantentzen zuen bere jaioterriarekin. Bere lagunen esanetan, Elgoibarko jai guztietara etortzen zen eta urte askoan izan zen Donostian bizi ziren elgoibartarren presidentea. Elgoibartar hauek urtean behin elkartzten ziren eta beste zenbait ekintzaren artean, dirua biltzeko ohitura zuten Elgoibarko Santa Agedako koruentzat. Sabino Sorondori izugarri gustatzen zitzaizkion kirolak eta hainbat urtetan Gipuzkoako Arbitroen Kolegioko presidentea izan zen.

Pilar Eguneko meza

Astelehenean, hilak 12, Pilar Eguna ospatu zuten Pilar ikastetxean. Ospakizun nagusia meza izan zen. Argazkian ikusten den bezala, jende ugari hartu zuen parte Benantzio parrokoak eta Lejarreta jaunak gidatutako ospakizunean. Ondoren, ikastetxeko zuzendaritzak luntxa eskaini zien ikasle, guraso eta ikasle ohiei. Pilar ikastetxeko Eskola Elkartek eskerrak luzatu nahi dizkie Pilar Eguneko ekitaldietan parte hartu zuten guztiei.



- Kontabilitate	 URKIDI	Kalamua 12 ELGOIBAR
- Lan		Tel-Fax: 943 74 18 91
- Fiskal		
AHOLKULARITZA		
ITT ERCOS ASEGURROAK		

	Bukatua S. Coop
	Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR	
MEKANIZATUEN TAILERRA	

● **N-634**
errrepidari
buruzko azterketa
egingo da

Elgoibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarlanean, N-634 errepidari buruzko azterketa egingo dute. Helburua, Sigmara bitarteko gunea aztertzea da eta gaur egun dauden puntu beltzak, oztopoak, auto iladak eta bestelakoak jasotzea. Azterketa egin eta gero ateratzen diren konklusioen arabera, aipatutako arazoei zein irtenbide posible eman ahal zaien jakinaraziko da. Azterketa urte amaierarako egin nahi da.

Kultur Etxe ondoko etxeak bota dituzte

Asteartean hasi ziren Kultur Etxe ondoko eraikuntza zaharra botatzen. Aspalditik zegoen hori egiteko asmoa eta badirudi gauzak bide onetik doazela. Izan ere, jakin dugunaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendurako Sailak 4 milioi pta.ko dirulaguntza eman du gunea behar bezala garbitu eta egokitze-ko. Azarorako guztia prest egotea nahi da eta orain arte pasoa geratzen ziren kontenedoreentzat txokoa egokituko da bertan. Udaletxeko iturrien arabera, “bazen ordua Elgoibarko hirigunea oztopatu eta zartartzen zuen puntu beltz hori ezabatu

eta garbitzeko. Azkenean iritsi da garaia eta aurrerantzean herritarrek leku erabat ezezagunarekin egingo dute topo, horrenbeste urtez Kultur Etxearen inguruan zartartzen zuten zonalde hori benetan garbi eta argi geratuko baita”.



Asteartean hasi ziren eraikuntza zaharra botatzen eta dagoeneko zonaldea garbi geratu da.

Cafes Baqué
 169x121,5cm
 inprentan



Fausto Vitores eta M^a Josefa Lopez: "Benidorm-en egotea oporretan egotea da"

Fausto Vitores (78 urte) eta Maria Josefa Lopez (75 urte) senar-emazteak Estatu espainiarreko txokorik gehienak bisitatu dituzte. Izan ere, aurrejubiliazioa eskuratu zutenetik, ia urte osoa Benidorm-en pasatzeaz gain, IMSERSOK antolatzen dituen bidaietan ere izena ematen dute. Batean eta bestean ibili dira eta horren berri emateko deitu deigu.



- Irailtik maiatzera bitartean Benidorm-en egoten zarete.

- Bai, hala da. Aurrejubilatutako baina lehen apartamentu bat erosi genuen Benidorm-en gerora begira. Izan ere, tokia asko gustatzen zaigu eta klima ezinhobeia da osasunerako, beraz, hantxe pasatzen dugu ia urte osoa.

- Eta zer da, bada, Benidorm-ek duena?

- Gauza asko baina, batez ere, klima. Han egun guztiek uda dirudite, hondartzara joan gimnasia piska bat egitera, bainutxoak hartu itsasoan, pasiaran atera lagunekin, karta partidatxoak arratsaldean, ederki bazkaldu...

- Eta noizean behin dantzara.

- Hori ere, baina oso noizean behin. Hasieran, duela 15 urte inguru hasi ginenean joaten, dena zen berria guretzat eta ia egunero ateratzen ginen. Gaur egun, ordea, Benidorm-en bizimodu normala egiten dugu eta urteetan ere aurrera goazenez...

- Jende askok esaten du Benidorm-etik eraberritua etortzen dela.

- Hala da eta. Hemen aurpegi serioarekin egoten den jende askori irribarrea ikusten diozu uneoro Benidorm-en. Jende asko dago, giro polita, alaitasuna, poza... Eta hori guztia osasuna da. Azken batean, jendea ondo pasatzera joaten da Benidorm-era, eta hori igarri egiten da.

- Dena dela, beste hainbat toki ere bisitatu izan dituzue.

- Bai. IMSERSOK antolatzen dituen bidaietara joaten gara urtean bi aldiz. Toki ikusgarri asko bisitatu ditugu, Mallorca, Ibiza (argazkian), Malaga, Peñíscola, Burgos, Salamanca... hainbat eta hainbat. Egia esan, ikusgarriak diren museo eta kobak leku guztietan aurki daitezke eta horiekin disfrutatzea asko gustatzen zaigu. Dena den, ikusitakoak ikusita, guztien artean ederrena eta ikusgarriena Donostia da, dudarik gabe, txapela kentzeko hiria da.

- Hainbeste denbora Elgoibartik kanpo egon eta gero, zer

moduz herrian?

- Hemen ere gustura ibiltzen gara. Familia hemen bizi da, lagunak hemen daude... Eta gustura joaten garen arren, bueltatu ere gustura bueltatzen gara. Toki bakoitzean disfrutatzen jakitea da kontua.

- Eta atzerrian izan al zarete inoiz?

- Ni (Fausto) Parisen izan nintzen duela urte asko, ikasbidaian. Leku ikusgarriak bisitatu genituen, enpresa oso aurreratuak ikusi, Irrati eta Telebista frantsesa... Erabat txundituta geratu nintzen Parisekin.

- Eta zein herrialde bisitatuko zenukete gustura?

- Niri (Fausto) Europako erdialdea ezagutzea gustatuko litzaidake, Hungria, Rumania eta hori guztia. Historia oso aberatsa dute eta museo ikusgarriak. Nik (M. Josefa) ez dut herrialde berezirik, beharbada Paris, baina senarra egonda dagoenez...



Karmen Arizmendia- rrieta

"Urteetan haserre egon eta gero, berriz hasi eta bost hilabetera ezkondu ginan"

Karmen Arizmendiarrietak 78 kurte ditu eta Sabin Arriolak 79. Irailaren 9an urrezko ezteiak bete zituzten, hau da, 50 urte egin dituzte elkarrekin. Usurbilen izan zuten elizkizuna eta bazkaria. Karmenek esan digunez, bere garaiko ezkontzek ez zuten zerikusirik gaur egungoekin, "baina ilusio berdina ezkontzen ginan". Bi seme-alaba eta biloba bat dute.



- Nobiotan izan zenuten haserretxoren bat, ezta?

- Bai, kontaukoizut istorixia. Gerra 39xan amaitu zan eta gu Karmen egunian hasi ginan. Nik (Karmne) ez naban ezautzen eta bera etorri zitzaten. Hola hasi ginan eta lau urtian ibili ginan. Gero, tontakerixa bateatik bost urtian egon ginan hasarratuta. Gero berriz hasi ginan abilian eta setiembrian ezkondu.

- Non ezkondu zineten?

- Elgoibarko parrokian, goizeko 11:00etan. Gero etxian ein genduan bazkarixa, familixakuak bakarrik elkartuta. Akordatzen naiz langostia jan gendula. Oingo jatetxiak ez zian usatzen baina jatekua benetan ona euki genduan!

- Kontaiguzu loreekin gertatu zitzaizuna, Karmen.

- Nere padrinua izan bihar zanak ekarri bihar zizkitxen lorak Donostitxikan. Baina ezkontza bizperan itxo zitzakuen ume bat eta ez zian etorri. Arazua zan lorak nola ekarri Donostiatikan. Azkenian, Pulman treneko makinistak ekarri zitxuan eta garaiz ailegau zian ezkontzarako.

- Zuen garaian beltzez ezkontzen zineten. Gaur egun, aldiz,

zuriz.

- Bai, ez dakitx zergatik kanbixau dan baina nere sasoiak danak ezkontzen zian beltzez eta oin bezela zeozer lagatakua edo urdina eta holakuak ere ez zian usatzen. Halere, ez dakat inungo inbirixarik oingo ezkontzena. Berdin-berdina ingo neuke berriz ere.

- Nora egin zenuten ezteibidaia?

- Lelengo Gasteizera jun ginan eta gero Logroñora. Hamar egun edo in genduazen eta oso ondo ibili ginan.

- Gogoan al duzu lehen musua, Karmen?

- Noiz izan zan ez, baina seguru nobixo hasi eta denborara izan zala.

- Gaur egungo bikoteen antzik ez, beraz.

- Bat ere ez! Neu konforme neuria-kin. Gainera, gizonan etxera ezkondu nitzan, pentsaizu! Oin jendia oso errez haserretzen da. Neri demaseko penia ematen dia urte askuan ezkondu eta gero

apartatzen diazenak. Jakin in bihar da alkarri eruaten. Egon ezkerotan kontra, bestian kontra ez dao ezer itxerikan.

- Ilusio berberarekin esan al zenioten elkarri, "Bai, nahi dut" bigarren aldiz?

- Berdinakin. Berriz jaixo ezkerotan, gauzak berdin ingo nitxuzke.





ETA ZUK, ZER DIOZU?

Zein oroitzapen duzu soldadutzaz?

Objetore edo intsumitu? Gaur egungo gazte gehienek horietako jarrera bat hartzen dute soldadutza egin aurretik. Badirudi urte batzuetara soldadutza profesionalizatu egingo dela eta nahi dutenek izango dute ejerzitoko kide izateko aukera. Hala ere, duela urte batzuk egoera oso bestelakoa zen. Izan ere, soldadutza egitea derrigorra zen eta arrazoï jakinengatik libratzen zirenak ezik, gaintzekoei ez zitzaïen burutik pasa ere egiten soldadutza ez egiterik. Kalera atera gara eta bost herritarri galdegin diegu ea zein oroitzapen duten soldadutzari buruz.



Marcos Agea

Ni libratu egin nintzen ama alargundu egin zelako. Hala ere, gure garaian, nahiz eta gauza polita ez izan, ez zen trauma bat. Beharbada, gaur egun desberdina da, norbaitek lanpostua gal dezakeelako soldadutzara joateagatik, baina gure garaian desberdina zen. Ni gaur egun gaztea izango banintz ejerzitoan sartuko nintzateke.



Quintin Agirre

Soldadutza egin behar izan nuenean aita zaharra zenez libratu egin nintzen. Baina gero, gerra iritsi eta derrigor joan behar izan nuen. Garai hartan ezin zen ezetz esan, bestela afusilatu egiten zintzuten eta. Gaur egungo gazteek ez dakite zer den hori. Ez dago ondo baina argi dago etxea beldurrak zaintzen duela, ez zaintzaileak!



Jose Mari Larrea

Nik Donostin in naban, Loiolan. Soldadutza sekula ahazten ez dan esperientzia bat da. Orduan danak juten zian, ez zan oin moduan objetore, insumiso eta holakuak dau dela. Ni oin seguru ez nitzakela jungo! Soldadutzan ez da ezer onik ikasten, denboria alperrik galtzen da.



Manuel Tobajas

Nik soldadutzan azterketa egin eta musika bandarako plaza atera nuen. Soldadutza egiteaz gain, gerran ere parte hartu nuen. Baina oroitzapen oso onak ditut, gizonezkoak eta emakumezkoak ere ezagutu nituen. Beti geunden jairik jai eta ondo irabazten genuen. Berriz joateko aukera izango banu, horixe animatuko nintzatekeela!



Alberto Martín

Nik oso lagun onak egin nituen eta esperientzia aberasgarria izan zen. Momentu txarrak daude, baina baita onak ere, eta guztietatik ikasten da. Lehenengo aldia da etxetik kanpo zaudena eta horrek asko irakasten du, beste gauza batzuen artean, nagusiak errespetatzen. Gaur egungo gazteek ez dituzte gauza horiek ulertzen.



Negua griperik gabe pasatzeko aholkuak

- 65 urte baino gehiago badituzu, urrian gripearen kontrako txertoa hartzea gomen datzen da. Txertoa doan jartzen dute edozein osasun zentrotan.

- Arrautza edo antibiotikoei alergia baldin badiezu, medikuari jakinarazi txertoa hartu aurretik. Izan ere, gripearen aurkako txertoak oiloaren arrautzetan produzitzen dira. Purifikatu egiten diren arren, alerjiadunei kalte egin diezaizketen arrautza proteina kantitate txikiak gera daitezke. Gainera, era honetako medikamentu gehienek bezala, honek ere antibiotikoak daramatza.

- Gripearen aurkako txertoak ez du erreakziorik sortzen. Halere, batzuetan besoa (txertoa besoan eman bada) gorritu egin daiteke edo tenperatura piska bat igo. Gripea duzula sentituz gero, medikuari esan. Gerta daiteke txertoa hartu aurretik gripea inkubatzeko egotea.

- Ahal den neurrian, hotza egiten duen hilabeteetan jende asko egoten den lekuak ekidin. Eta, ahal bada, gertu da goen jendeak eztluk edo doministikurik ez dezala inguru-

ruan egin.

- Gripea duen jendearekin ahalik eta kontaktu gutxien izan eta ez bisitatu.

- Burukomina, ondoeza, giharreetako mina, sukarra edo antzeko sintomaren bat izanez gero, gripea izan dezakezu nahiz eta txertoa hartu. Ohera joan eta medikuari deitu.

- Sukarra jaisteko analgesikoak hartu eta likido asko edan.

- Hirugarren edo laugarren egunerako sukarra ez bada jaisten, eta astebetera eztluk jarraitzen badu, berriz deitu medikuari.

Gogoan izan, baina ere...

- Nahiz eta osasuntsu egon, 65 urtetik gorako guztiek hartu behar dutela txertoa.

- Urte batean hartutako txertoak ez du balio hurrengo urterako.

- Gogoan izan urri eta abendua bitartean hartu behar dela txertoa baina hobe urri edo azaroan hartzea abenduan baino. Izan ere, epidemia azaroan hasten da eta ordurako txertoa hartuta izatea gomendatzen da.



M^a Jesus Otaegi Sagar tarta

OSAGAIAK: sagarrak, arrautzak (bana pertsonako), moldeko ogia, bi koilarakada azukre eta esnea (bi arrautzako basokada bat).

PRESTAKETA

“Azukria, esnia eta arrautzak nahasten dia lehenengo. Ondoren, molde bat mantekila piska batekin busti eta gainian moldeko ogixa jartzen da. Ogi horren gainian aurretik fin-fin txikitxutako sagar zatixak jarri bihar dia eta azkenian, dana prest dauanian, danan gainera aurretik esniakin, azukriakin eta arrautzekin egin dogun nahastia botatzen da. Moldia laban sartu eta orratz batekin jun bihar da kontrolatzen ia noiz dauan inda, gutxi gorabehera ordu erdi bihar da. Prest dauanian, nahi dabanak gaintetik mermelada piska bat bota diezaioke”.

Jose Luis Arana Arana elgoibartarra betidanik izan da zezenzalea. Hori horrela, hil honen 10ean bere ametsetako bat egia bihurturik ikus ahal izan zuen behingoz: Elgoibarrek txoko taurino propioa edukitzea, "Mazzantini Txoko Taurinoa", hain zuzen ere. Modu horretan, toreatzaile elgoibartarrari omenaldia tributatu nahi izan zaio. Beraz, Txoko horretako bazkide izan nahi duen horrek badaki zer egin: Jose Luisen Estazio tabernara joan eta bertan Txoko bazkide izateko izena eman.

ARANA
JOSU

"Mazzantini en irudia garbitzea nahiko genuke"

- Noiz hasi zen "Mazzantini Txoko Taurinoa" sortzeko ideia?

- Duela laupabost urte sortutako ideia da. Izan ere, egun batez Usoa tabernan Jose Antonio Gorostizarekin hizketan hasi eta "zirkulo" taurino bat sortzeko ideia piztu zen. Hasieran "zirkuloa" ez zen Estazio tabernan egiteko, baina azkenean tren geltokitik gertu dagoen taberna honetan egitea erabaki zen. Agian Mazzantini zenarekin bat zetorrelako, hau da, ferrobiarioa, toreatzailea... Azkenean Txoko izena gelditu zaio euskarazko espresioa egokiagoa iruditu zitzaigulako.

- Arazorik izan al duzue Txokoa eratzeko orduan?

- Ez, arazo serioegirik ez. Beno, manifestaldi batzuk izan dira txokoaren aurka baina orohar erraztasunak

izan ditugula aitortu behar dugu. Jende ugari eskaini digu laguntza, esaterako, Udalak ideiak eman dizkigu, gauzak nola egin azaldu...

- Zein ekintza burutuko dituzue hemendik aurrera?

- Hasieran pentsatu dugun ekintzarik garrantzitsuena kale bati "Mazzantini" izena jartzea da, elgoibartar honek omenaldia jaso dezan toreatzailea eta ferrobiarioa izan zelako. Aurrera begira nobillada bat antolatu nahi genuke baina oraindik goizegi da zerbait konkretua esateko. Momentuz gure ibilbidea hasi besterik ez da egin eta garaia denean emango dugu berri gehiago.

- Zenbate osatzen duzue Txokoa eta zenbat izan nahi duzue?

- Oraingoz hogeita bost edo izango gara baina etorkizunera begira ez dugu hel-

buru konkreturik. Akaso ehun izatera iritsiko garen itxaropena dugu baina ez dugu azkarregi ibiltzerik nahi. Zerrendatxo bat jarri eta piskanaka betetzen joatea nahi genuke. Bestalde, pertsona edo sexuaren arabera bereizketarik ez dugu egingo, eta arazo politikoetan ez dugu muturrik sartuko. Hori oso garbi azaltzen da gure estatutoetan.

- Nor da Mazzantini Elgoibar osoarentzat?

- Duela 42 urte bere omenez plaka bat jarri zen garai hartako hainbat pertsonalitateari esker: Rezola alkateta, Roman Ezenarro, orduko parrokoa... Guk ere horrela jokatu behar genuela erabaki genuen, Mazzantini beti oso leku onean utzi baitzuen Elgoibar. Gure usitez, Mazzantini ez da behar beste errekonozitu herrian, agian jende askok oraindik ez daki nor izan zen gizon hau. Gehienek dakite "gonazalea" izan zela eta politikan gehiegitxo sartu zela. Hala ere, benefizientziako zenezketetan bera izan zen batere kobratu gabe toeratzen zuen bakarrenetarikoa, oso irekia zen... Guk ezaugarri horiek kontuan izanik, Mazzantini en irudia nolabait garbitzea nahi genuke. Gustatuko litzaigukeen gizona zen.

- Zenbat denbora egingo duzue Txoko-ko presidente karguan?

- Estatutoen arabera bi urte, baina jendeak jarrai zezadan nahi badu, ni prest, eta alderantziz ere gauza bera. Denborak erabakiko du hori guztia. Klubeko edonor izan daiteke presidentea, hala jartzen du estatutoetan.

Arnaitz Gorriti



INGELESA, gainditu beharreko asignatura

Bi urte bete dira Eibarren WALL STREET INSTITUTE zentroa zabaldu zenetik. Bigarren ikasturtean matrikula kopurua %35ean handitu zen, 300 ikasleren kopurua gaindituz. Irailean matrikula kopurua %50ean igo da, iazko datuekin konparatuta. Jesus Markaide, WALL STREET INSTITUTEko zuzendariak, zentroaren funtzionamendua azaldu digu.



Jesus Markaide (Zuzendaria) eta Eamon Dooerty (Service Manager)

Zelan sortu zen Wall Street Institute?

60. hamarkadaren amaieran, lehenengo IBM ordenagailuak erabiltzen hasi zirenean, FORTRAN programaren erabilera kopuru zabala prestatu behar izan zen denbora laburrean. Peccenini italiarrak, linguistaz eta injenieruz osatutako talde batek lagunduta, ingelesaren irakaskuntzarako metodologia berria sortu zuen, ordura arteko teknologia erabiliz. Denborak aurrera egin duen neurrian, metodologia horri eutsi zaion arren, teknologia berriak erabiltzen hasi gara, gaur egungo multimedia sistema erabili arte. Wall Street Institute 80. hamarkadan sartu zen Espainian eta, gaur egun, lider nagusia dugu ingelesaren irakaskuntzan, 135 zentrotan dituen 55.000 ikasleekin.

Deba Behean hirugarren ikasturtea hasi berri du Wall Street Institute-k. Arrakasta izan duela esan daiteke?

Ikasle kopuruaren igoerak hori baieztatzen du; are gehiago, hiru ikasletik bik urtetik urtera gurekin jarraitzen dute edo besteren batek gomendatuta datoz. Horrek asetzen gaitu benetan. Bestalde, alor didaktikoari dagokionez, Estatu osoko 135 zentroen artean, emaitza onenak lortu ditugu bi hilabetetan.

Zertan dira desberdinak hemengo ikasketa metodoak?

Ikaslegoa motibatzen saiatzen gara. Bakoitzari duen beharra eta maila galdetzen diogu eta, horren arabera, ikasketa plana egiten dugu. Hala ere, ikasleak berak aukeratzen du noiz eta zenbat denbora emango duen ikasten. Dena dela, ordenagailuaren aurrean ordu eta erdi baino gehiago ez egotea gomendatzen dugu. Bost dira, gure ustez, Wall Street-ek eskaintzen dituen abantaila nagusienak: ikasleak aukeratzen du ordutegia; klaseak errekuperatu daitezke; nahi dituzun ordu guztiak sartu ditzakezu; giroa berezia eta erakargarria da eta emaitzak lortzea ziurtatzen dugu.

Sistema tradizionalak ez du dagoeneko balio?

Ez, ez da txarra; nik neuk, beste askok egin duten moduan, sistema tradizionalarekin ikasi dut. Baina desberdina da. Wall Street Institute-n ustez, gure metodoa hobeto prestatuta dago gaur egungo ikasleak dituen beharrak asetzeko. Adibide moduan, akademia tradizional batean zaila da 4 edo 5 maila baino gehiago izatea eta guk, aldiz, 12 ditugu. Beste akademietan ikasle batek gaur klasea galtzen badu, galdu egin du; gurean, berriz, astero astero errepikatzen dira. Beste zentroko ikasleek ez dakite noiz lortuko duten beharrezkoa zaien maila; gurekin hori lehenengo egunean zehazten da eta idatziz ziurtatzen dugu gainera. Ikasleak irakaslearen ingelesa ikasten du, baina ingelesak, Wall Street Institute-ko I+Gkoen iritziz, 42 dialekto edo azento desberdin ditu; gure metodoa 42 dialekto horiek ulertzen eta menperatzen saiatzen da.

Zein da zuen ikaslegoaren perfila?

Gure ikastaroak pertsona helduei bideratuta daude. 16 urtetik gorako pertsona hartzen dugu heldutzat. Dena dela, azken aldian gero eta gazteagoak etortzen dira, 15 eta baita 14 urtekoak ere. Ikasleak interesa badu eta arduratsua bada, gustura jarraituko du gure metodoa; kontutan hartzekoa da gu ez gaudela metodoa ezartzen ohituta, ikaslea motibatzen baizik. Horretarako interesa eta erresponsabilitatea beharrezkoak dira.

Garestia da Wall Street Institute-n ingelesa ikatea?

Garestia edo merkea izatea gauza erlatiboa da beti, eta lortzen diren emaitzak dira kontutan hartu beharrekoak. Gure ikasleen artean bi herenek berriro gurekin jarraitzen badute, prezioa eta kostearen arteko erlazioa ona delako izango da. Gauza bera esan dezakegu inguruko enpresen kasuan. Izan ere, ez lituzkete langileak hona bidaliko, prezioa kontutan edukita emaitzek ez balute merezi izango.



WALL STREET INSTITUTE
SCHOOL OF ENGLISH



Azkue

A

Argazki hau M. Nieves Orbeak utzitakoa da eta San Lorentzo auzoko plazan dago aterata 1956. urtean. Egun honetan M. Cristina García, San Lorentzoko maistrari omenaldia egin zioten. Zutik daudenak omenaldia antolatzen ibili zirenak dira, ezkerretik hasita: **Francisco Muguruza 'Berdun', Jose Ma-**

ria Arakistain (†), Gloria Arriola, Jose Mendikute (†), Begoña Juaristi, Iñaki Arriola (†), Felix Etxeberria eta Angel Arriola (†). Eserita daudenak **Jose Lejarreta** auzoko alkatea, **Justo Arriola, M. Cristina García maistra** eta **Ines Zabaleta (†)** dira.

Esan digutenez, M. Cristinak makina bat urte eman zituen San Lorentzon maistra, 30 urte baino gehiago. Lan hau utzi zuenean egin zioten omenaldia eta ondoren, Udaletxeko telefonista lanean aritu zen jubilatuta arte. Duela gutxi arte Gelaxorota baserrian bizi izan da.

Guztiona izango den herri baten alde

Bakea eta tolerantziaren bidearen alde

Gure sustraiak lur honetan daude



Urriak 17, 1. jardunaldia

SASKIBALOA, Herri Eskolan

- **Benjamin mutilak** ■
- 10:00 Ikastola A - Ikastola B
- 11:00 Pilar B - Ikastola C
- 11:30 Pilar A - Herri Eskola A
- 12:30 Mendaro A - Herri Eskola B

■ **Benjamin neskek** ■

- 10:30 Pilar B - Ikastola B
- 12:00 Pilar A - Ikastola C

ESKUBALOA, Kiroldegian

- **Alebin mutilak** ■
- 9:00 Ikastola A - Ikastola C
- 9:45 Ikastola B - Pilar
- 10:30 Jauja A - Herri Eskola
- 11:15 Jauja B - Mendaro A
- 12:00 Deba Gorriak - Mendaro B

ESKUBALOA, Ikastolan

- **Alebin mutilak** ■
- 12:00 Deba Berdeak - Deba Urdinak
- **Alebin neskek** ■
- 9:00 Ikastola A - Ikastola B
- 9:45 Jauja E - Ikastola C
- 10:30 Jauja D - Pilar A
- 11:15 Deba Horiak - Pilar B

FUTBOLA, Mintxetan

- **Infantil mutilak** ■
- 11:00 Ikastola - Pilar A
- 11:45 Insti B - Insti A
- 12:30 Deba - Pilar B
- **Infantil neskek** ■
- 10:00 Ikastola A - Ikastola B
- 10:45 Insti - Ikastola C
- 11:30 Pilar B - Ikastola D
- 12:15 Pilar A - Ikastola E

Ramon García irabazi zuen San Pedrorra VII. igoera

Pilar Egunean, urriak 12, Elgoibarko Lagun Elkarateak antolatzen duen San Pedrorra igoera jokatu zen eguraldi oso eskasarekin. Eguerdiko 12:00etan 32 txirrindulari Plaza Handitik San Pedrorantz irten ziren. Nahiz eta eguraldi oso eskasa egin, helmugara denak iritsi ziren bat izan ezik. Irabazlea Ramon García izan zen. Jon Oregirekin batera iritsi zen helmugara baina sprintean García nagusitu zen. Hala ere, biek denbora bera egin zuten. Irabazleak honako hauek izan ziren maila bakoitzean:



- Infantilak: **Iker Martínez** (19'52")
- Kadeteak: **Ramon Dominguez** (17'58")
- Jubenilak: **Jon Oregi** (15'22")
- Afizionatuak: **Ramon García** (15'22")
- Beteranoak: **Jose Maria Fernández** (15'36")
- 50 urtetik gora: **Jose Agirre** (20'05")

KIROL ALBISTEAK

● **98/99ko Eskola Kirola programa asteburuan hasiko da**

Herriko hiru ikastetxeek, kirol elkarte eta Udal Kirol Patronatuaren laguntzaz antolatzen duten Eskola Kirol programaren lehen jardunaldia larunbatean, hilak 17, jokatuko da. Aurten Elgoibarko eta Mendaroko ikastetxeetako haurrez aparte, Debako eta Mutriku alebin eta infantil mailetako neska-mutilek ere hartuko dute parte eskubaloia eta futbol 7 kiroletan. Elgoibarren kirol instalazio egokiagoak daudelako erabaki dute Debako eta Mutriku ikastetxeek Elgoibarko Eskola Kirol programan parte hartzea. Iaz bezala, aurtengo ikasle kopurua 450 inguruan ibiliko da. Agian 500era ere iritsiko da, Deba eta Mutriku kontuan hartzen badira. Ohi bezala, banakako eta taldekako kirolak eskainiko dira: eskubaloia, saskibaloia, futbol 7, eskalada, rugbya, ur-parkea, mendi irteerak,...



BARREN *astekarian*

PUBLIZISTA behar da

ESKATZEN DA

- Ikasketa ertainak
- Harremanetarako dohaina

BALORATUKO DA

- Marketing/publizitate ezagutzak
- Komertzial lanetan esperientzia
- Autoa edukitzea

ESKAINITZEN DA

- Urtebeterako kontratua (soldata finkoa + komisioak)

Izena emateko azken eguna: URRIAREN 30a (ostirala)

Izena emateko eta informazio gehiago: Elgoibarko Izarra R. E. Ubitarte 4, behea (Tel. 943 74 16 26)

Eskubaloia, 98/99 denboraldia Jubenil eta kadete mutilak

Pneumax Elgoibar eta Tecnomeca Elgoibar eskubaloi taldeen aurkezpena egingo dugu aste honetan. Jubenil eta kadete mailako bi taldeok Euskal Ligan daude. Josean Hidalgo da entrenatzailea eta bere esanetan, "iazko emaitza berdindu eta ahal bada, hobetzea da gure asmoa. Jubenilek 4. postuan amaitu zuten iaz eta kadeteek nahiko atzean. Dena den, helburu nagusia Euskal Ligan mantentzea da".

Jubenilak



PneuMAX Elgoibar. Atzean, ezkerretik hasita: Josean Hidalgo entrenatzailea, Jon Aierdi, Xabier Uribeetxeberria, Kepa Mendikute, Aitor Dorado, Oier Konde, Iban Herrero, Ibon García eta Juanjo Martín. Makurtuta: Jonathan Martín, David Bilbatua, Mikel Elustondo, Eduardo Etxeberria, Josu Motriko, Joseba Sagasta, Jose Perea eta Jon Larrañaga. Argazkian ez dauden beste talde-ideak: Goiatz Leibar, Josu Perea eta Julen Hernández.

Kadeteak



Tecnomeca Elgoibar. Atzean, ezkerretik hasita: Jon Zaldúa, Julen Esnaola, Aitor Oteiza, Aingeru Osoro, Unai Garate, Asier Barrutia eta Josean Hidalgo entrenatzailea. Makurtuta: Gorka Garaizabal, Oier Rubio, Asier Jauregi, Ander Mujika, Iker Zubiaurre eta Aian Alvarez. Argazkian falta direnak: Daniel Torres, Iñaki Ovejero eta Aitor Rosario.

EMAITZAK

Futbola

Haundi 5 - Ondarroa 0

Elgoibar 4 - Ordizia 2 (1. erreg.)

Elgoibar 11 - Mutriku 1 (Neskak)

Elgoibar 1 - Zarautz 1 (L. N. jub.)

Eskubaloia

Hegialde Auto 20 - IMH Elgoibar 25

(Senior mut.)

IMS Elgoibar 32 - Aurrera 7

(Senior nes.)

Corazonistas 32 - Tecnomeca Elg. 12

(Kad. mut.)

Corazonistas 21 - Pneumax Elg. 21 (Jub. mut.)

Pagoaga Elg. 14 - Urdaibai 13

(Kad. nes.)

Unceta Elg. 29 - Urdaibai 14 (Jub. nes.)

Idarraga Kafeak 2. saria

HAUNDIko jokalarri erregularrena 98/99

JOKALARIAPUNTUAK

1- Eneko 15

2- Beitia 13

3- Aitor Trebiño 9

4- Txasio 7

5- Igor 7

6- Iker Leonardo 6

7- G. Leonardo 5

8- Loren 5

9- Elkoro 4

10- Madina 3

11- Caro 3

12- Muguruza 3

AGENDA

Futbitoia, Kiroldegian

Igandea, 18

9:00 Herminios - Los Peñaskos

10:00 Aide Globun - S. Braga

11:00 PSK - Kunta Kinte

12:00 Berrogei Duro - Lojantzi

13:00 Aizkorak Mendibil - Menisco

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 17

13:15 Pedrusko - Urki (2. erreg.)

17:00 Haundi - Noja

Igandea, 18

10:45 Elgoibar - S. Tomas Lizeoa (Inf.)

12:15 Elgoibar - Anaitasuna (Kad.)

16:30 Elgoibar - S. D. Eibar (1. jub.)

Eskubaloia, Kiroldegian


Larunbata, 17

16:00 Tecnomeca Elg. - Azkartza (Kad. mut.)

17:30 Pneumax Elg. - Azkartza (Jub. mut.)

19:15 IMH Elgoibar - Loiola (Senior mut.)

Egoitz Mora, Euskadiko judo txapeladuna 18 urtez azpikoetan



Egoitz Mora judoka elgoibartarra hirugarren aldiz podiumaren gorenera iritsi da, astelehenean, hilak 12, Euskadiko Judo Txapelketa irabazi baitzuen. 18 urtetik beherakoen mailan lehiatu zen Egoitz. Erronka handia zen elgoibartarrentzat, iaz baino maila bat goragoko kategorian eta pisu handiagoan aritu baita. Iaz 17 urtez azpikoetan hartu zuen parte, 78 kilotik gorako pisuan. Aurten, berriz, 18 urtez azpikoan eta 90 kilotik beheragoko pisuan. Hala ere, Egoitz erraz gailendu zitzaizen beste 5 lehiakideei, probintzietako txapeladunak zirenei. Gogoratu behar da, baita ere, Egoitz Madrilen izan zela hilaren 9tik 12ra bitartean Espainiako selekzioarekin kontzentratua. Astelehene-

an, goizeko 7:30ean iritsi zen Elgoibarrera eta hori oztopo izan zitekeen borrokaldietako emaitzei begira. Baina eragozpenei aurre egin eta hirugarren aldiz jarraian lortu du Euskadiko txapeladuna izatea. Emaitza honek Espainiako txapelketako sektorerako sailkatzeko aukera eman dio. Txapelketa hau hilaren 24an izango da Castejón-en (Nafarroa), eta lehenengo bien artean salkatuko balitz, Estatu-ko txapelketako finalera joango litzateke, Iruñera hain zuzen. Honez gain, 16 urte bete berri dituen gazte honek nazioarteko beste lehiaketa batean parte hartu behar du Asturiasen, urriaren 31tik azaroaren 1erako asteburuan. Argazkian, podiumaren gorengo lekuan, Egoitz Mora.

ANDRADE ESKULTURAK



Harria

Brontzea

Galdaketa propioa

Enkarguak

Opariak

Ermuaranbide, 13 behea · Tel: 629 15 14 63

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 943 461111
 Txanda hartzeko . . . 943 743354
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak . . . 943740385
 D.YA (anbulantzia) . . . 943 464622
 Gurutze Gorria . . . 943 743864
 Mendaroko Ospitalea . . . 943 756264
 Odol Emaileak . . . 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 943 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 943 744366
 Udal Kirol Patronatua . . . 943 744415
 Kultura Zerbitzua . . . 943 742158
 Mendaroko Udala 943 756100
 Ongizate zerbitzua 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarza 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza . . . 943 740296
 Zaharren Biltokia 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 943 74 21 41
 HHI (EPA) 943 74 08 80
 Herri Eskola 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 943 74 02 67
 Ezenarro (Meka) . . . 943 74 44 80
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
 El Diario Vasco 943 74 40 73
 El Correo Español . . . 943 74 10 82
 Egin 943 10 84 21
 Zazpiki Irratia . . . 943 74 34 74

16 ostirala

19:30 KOMIKI ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA
 Kultur Etxean
 Hilaren 25erarte
 Antolatzailea:
 Kokoe Komiki Elkarte

22:15 ZINEA
 "Spawn"
 Antolatzailea: Kokoe
 Komiki Elkarte

17 larunbata

11:30 URRUZUNO LITERATUR TALDEAREN BILERA BARRENen

19:30-22:15 ZINEA
 "Godzilla"

18 igandea

12:30 MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA
 Herriko Antzokian

16:30 IDI-DEMAK ARTAZO BASERRIAREN ALDE
 San Migelen
 Antolatzailea: San Migeleko Jai Batzordea

16:30-19:30-22:15 ZINEA
 "Godzilla"

19 astelehena

22:15 ZINEA
 "Godzilla"

21 asteazkena

18:30 HERRI INSTITUTUKO TUTOREEN BILERA GURASOekin
 DBHko gurasoen txanda
19:30 HERRI INSTITUTUKO TUTOREEN BILERA GURASOekin
 LOGSE eta Zikoletako gurasoen txanda

22 osteguna

22:15 ZINE KLUBA
 "El invitado de invierno"
 Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

23 ostirala

22:15 ZINEA
 "Dobermann" eta
 "El condón asesino"
 Antolatzailea: Kokoe
 Komiki Elkarte

ZINEA



Godzilla

Pizti handi bat Manhattan hirirantz abiatzen da aurrean topatzen duen guztia suntsituz. Zientzilari bat, telebistako erreportari bat, EEBBetako ejerzitoa eta aseguruetxeko ikerlari frantses bat pizti honen atzean zer dagoen ikertzen saiatuko dira. Munstroen artean munstrorik izugarriena nola suntsitu asmatu behar dute, Godzillak EEBBetako hiririk garrantzitsuenak suntsituko ditu bestela.

Zuzendaria: Roland Emmrich.
Antzezleak: Mathew Broderick, Jean Reno, Maria Pitillo.

● **Herri Institutuko gurasoen bilera**

Asteazkenean, urriak 21, Mekanika eta Institutuko tutoreek, beraien ikasgelako ikasleen gurasoekin ikasturte hasierako bilera egingo dute. Arratsaldeko 18:30ean DBHko ikasleen gurasoen txanda izango da eta 19:30ean LOGSEko batxilergoa eta zikloak ikasten ari diren ikasleen gurasoena.

● **Artazo baserriaren aldeko idi-demak San Migelen**

Azken aldia Artazo baserria berreraikitzeke antolatzen ari diren ekitaldiekin jarraituz, domekan, hilak 18, idi-demak izango dira San Migeleko Jai Batzordeak antolatuta. Parthartzailak Soarte, Madarixako Ezkerra eta Artaldialde dira. Idi-dema San Migelen izango da arratsaldeko 16:30ean hasita. Batutako dirua Artazo baserrikoentzat izango da berreikitze prozesuan lagutzeko.

● **'Plazara Dantzara' ikuskizuna prestatzeko ikastaroa**

Haritz Dantzari Taldearen 25. urteurrena dela-eta, Gabon Zahar feria egunean izaten den 'Dantzara Plazara' ikuskizuna berezia izatea pentsatu dute Haritzekoek. Batetik, bazkaria antolatzeko asmoa dute, taldekoak izan diren guztiak zein edozein herritar joan ahal izango delarik. Eta bestetik, 'Plazara Dantzara' ikuskizuna prestatzeko, trikiti ikastaro berezia antolatu dute Udal Kiriol Patronatuarekin batera. Ikastaroa hilaren 17an hasiko da eta doan izango da.

● **Kokoeren Komiki Jardunaldiak hilaren 25era arte luzatuko dira**

Gaur, hilak 16, (ostirala) Kokoe Komiki Elkarteak antolatutako Elgoibarko V. Komiki Jardunaldien barruan, Euskal Herriko sei komikigileren lanei buruzko erakusketa inauguratuko da arratsaldeko 19:30ean. Ohi denez, Kultur Etxean izango da eta hilaren 25era arte egongo da irekita. Gaueko 22:15ean, berriz, 'Spawn' pelikularen emanaldia izango da Herriko Antzokian. Datorren ostiralera, hilak 23, zine emanaldi bikoitza antolatu dute: 'Dobermann' eta 'El condón asesino'. Azkenik, urriaren 24an, larunbata, 'Breath makers' eta 'Drive way service' talde austriarrek kontzertua emango dute Gaztetxean.



● **Hil berri den Felipe Igartua gogoratuko dute Bandar en kontzertuan**

Domekan, hilak 18, Udal Musika Bandak ohiko kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian eguerdiko 12:30etik aurrera. Emanaldiaren bitartean, minutu bateko isilunea gordeko da pasa den astean hil zen Felipe Igartua bandakidearen omenez. Felipe Igartuak 60 urte baino gehiagoz jardun zuen Bandan tronboia jotzen. Honez gain, Oñatiko bandan ere aritu zen. Kontzertuari dagokionean, Jose Antonio Osorok zuzenduta, bost pieza joko dituzte, hauetariko bat *Titanic* pelikulako soinu bandaren estreinaldia izango delarik. Egitaraua honako hau da: 'Sangre de artista' selekzioa, 'Porgy and bess' selekzioa, 'Titanic' pelikularen doinua, 'Caballería ligera' obertura eta 'Mambo Bando Uno' bandarako armonia.

T H A N D A H

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
17	Etxeberría* (Errosario kalean)	Anduaga
18	Etxeberría* (Errosario kalean)	Anduaga
19	Yudego	Yudego
20	Zabaleta	Zabaleta
21	Etxeberría	Etxeberría
22	Escala	Escala
23	Bidasolo	Bidasolo

ESCALA: Rekalde, 1

Soraluze. Tel: 75 16 38

ANDUAGA: Mendarozabal, 1

Garagarza. Tel: 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9

Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

18 igandea Eizagirre

ONGARRI
zine kluba



Zuzendaria: Alan Rickman.
Antzezleak: Emma Thompson,
Phyllida Law, Sheila Reid.

El invitado de invierno

Frances argazkilaria da eta duela gutxi alargun geratu da. Egoera honi aurre egin ezinda, ohean geratzea erabakitzen du. 15 urteko seme bat dauka eta bere kabuz moldatu beharko da. Mutiko honek bizitza deskubritu berri du eta bere amak sentitzen duenaren kontrakoa esperimentatzen hasten da, sexua eta maitasuna, adibidez.

OHARRA: Merkatu Txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia da.

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Pertsona gaztea behar da informatikako tekniko bezala lan egiteko. Esperientzia baloratuko da. Interesatuak idatzi **8 postakutxara**, Elgoibar. **943 74 03 37**
- ◆ Neska behar da etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko. Ahal bada, euskalduna. **943 74 45 87**
- ◆ Mutila behar da mezulari lana egiteko. Gida baimenarekin. **943 74 40 54** (goizez)
- ◆ Pertsona bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Goizeko 7:00etan hasita. **943 74 39 43** (Gaueko 21:00etatik aurrera deitu)
- ◆ Emakumea behar da goizez umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. **943 74 14 13** (20:00etatik aurrera)
- ◆ Neska behar da tabernako sukaldarako. Ogitartekoak egiteko. As-teburuetan. Esperientziaduna. **943 74 37 71**

◆ ESKAERA ◆

- ◆ 38 urteko neska eskaintzen da gaixoak zaintzeko, bai ospitalean baita etxean gauez ere. **943 74 31 75** (Carmen, goizez).
- ◆ Klinikak Laguntzailea eskaintzen da gaixoak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta informea ditut. **943 74 04 86** (Rosa)
- ◆ Neska eskaintzen da haurrak zaindu, etxeko lanak egin edo tabernan aritzeko. Esperientziarekin. **910 685 295**
- ◆ Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Esperientziarekin. **943 17 19 13**

Partikularrak

- ◆ Latineko partikularrak ematen ditut. **943 75 51 04** (Ana)
- ◆ Kimika eta matematikako klase partikularrak hartuko nituzke, talde txikietan. **943 74 20 85 / 74 24 23**
- ◆ Mekanika eta elektroteknikiako partikularrak emateko norbait behar da. **943 74 45 75** (arratsalde)
- ◆ Lehen Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. **943 74 17 96**
- ◆ Dibujo teknikoko klaseak ematen ditut. **943 74 43 98** (Iñaki. Gauez deitu)

Etxebizitzak

- ◆ Osasun kaskarra duen senar-emazte nagusiak etxea alokatuko luke. Igogailuarekin eta merke. **943 74 03 37**
- ◆ Etxea saltzen da Santa Ana kalean. 2. pisua, ganbararekin eta igogailuarekin. **943 74 03 83** **943 74 18 34**
- ◆ Etxea salgai Mendaron. Sukaldea eta jangela guztiz ekipatuak (Vegasa eta AEG). 35 m2ko garaia eta 12 m2ko ganbara ditu. **943 75 62 43**
- ◆ Pedro Miguel Urruzunon etxea alokatzen da. 1. solairua. **943 74 23 44**
- ◆ Etxea daukat alokatzeko Santa Ana kalean. **943 74 06 88**
- ◆ San Bartolome 2an, 4. solairuan dagoen 25 m2ko teilatupeko loka-la salgai. 1,5 milioi pta. **943 20 30 83** (Arantxa)
- ◆ Etxea daukat alokatzeko Santa Ana kalean. **943 74 06 88**
- ◆ Logelak ditut alokatzeko. Ura-sandi kalean. **943 74 03 93** (20:00etatik aurrera)

Salerosketak

◆ SALDU ◆

- ◆ Gazteen logelarako altzariak salgai merke. **943 74 20 41**
- ◆ Ford Orion 1.600 GHIA zuria saltzen da. 250.000 pta. Interesatuak galdetu Merkatu Plazako 22. postuan. (Ana)
- ◆ Kutxa forma duen ohe tolesgarria saltzen da. Piniuren egurrez egina. Oso polita. **943 74 40 85**
- ◆ Bi anplifikadore saltzen ditut. Bata baxuarentzat eta bestea kitarrarentzat. Prezio ona. **943 74 10 32**
- ◆ Akuario handi bat salduko nuke. Ur berokoa. Guztiz ekipatua. Merke. **943 74 15 16**
- ◆ Sukalderako mahai biribila salgai prezio onean. **943 74 10 42**
- ◆ Peugeot 205 GTi salgai. Estrak. **943 74 04 65** (Dani. Gauez)
- ◆ Beretta A304 Silver Lark repetidora saltzen dut. Berria eta garantiarekin. **943 74 02 09** (Gauez, Alberto).
- ◆ Bulegorako altzariak saltzen ditut. Nahiko berriak. **943 19 21 28** (gauez)
- ◆ Citroen AX-GT autoa salgai. Es-

- ◆ SS-AK matrikuladun Seat Marbella kotxea salgai. Egoera onean. Prezioa: 230.000 pta. **943 74 11 29**
- ◆ Kitarra espainiarra saltzen dut. Berria, estreinatu gabe. **943 74 17 01** (Asier)
- ◆ Garbigailua saltzen dut. Fagor etxekoa. Prezioa hitz egitekotan. **943 74 39 75** (Arrate)

◆ EROSI ◆

- ◆ Trikitixa bat erosiko nuke. 3 edo 4 ahotsekoa. **943 75 61 83**
- ◆ Egoera onean dagoen bigarren eskuko pianoa erosiko nuke. **943 76 56 78** (M. Jesus. Goizez)

Bestelakoak

- ◆ Gozoki denda zentrikoa traspasatzen da ezin delako atenditu. **943 20 36 92** (gauez).
- ◆ Lokal berritua traspasatzen da Merkatu Plazan. **943 74 25 17** (gauez)
- ◆ Agarre baserriko iturrian bastoi tolesgarria galdu nuen. **943 74 05 42**
- ◆ Elkarte gastronomikoa izateko egokitutako lokala saltzen da Elgoibarren. Eskaerak bidali **277 P.Kra. 20800 Zarautz**.
- ◆ Bi pertsona behar dira Bilbon (San Inazio kalea) pisua osatzeko. **943 77 12 77**
- ◆ 1970 urtean jaio eta Ikastolan ibili ginenon afaria Txarridunan izango da urriaren 31n. Malapen elkartuko gara arratsaldeko 18:30-19:00ak bitartean. Aferia 21:30ean izango da.
- ◆ Kaxa beltz batean sartuta zeuden betaurrekoak galdu ditut. Aurkitu dituenak dei dezala, mesedez. **943 74 19 57**
- ◆ Ikastolako DBHko 1. mailako neskek eskubaloian, saskibaloian eta futboleantrenatzeko pertsona bat behar dute. **943 74 29 32** (Gauez)
- ◆ Katu txikiak oparitzen ditut. Iku-si nahi duenak jo dezala helbide honetara: **Urasandiko 11 blokea, 51 portala, 3. pisua**. Lidia.
- ◆ Sehaska berria oparitzen da, zuriz tintatutako egurrezkoa. Seguritate baldintzak betetzen ditu. Koltxoirik gabe. **943 74 29 95**
- ◆ Caritasek etxebizitza bat jatzeko denetik behar du. Premiazkoa da.

Agurrak

- ◆ Zorionak **Itsaso Alguacil**-i hilaren 10ean 10 urte bete zituelako. Alasne eta Lararen partez. Zorionak baita ere Nadiaren partez eta Ikastolako 5. mailako partez.
- ◆ Zorionak **Enrike Ferrerari** hilaren 17an urteak beteko dituelako. Alabaren partez.
- ◆ Zorionak **Itziar eta Jose** mendarotarrei beren 22. ezkonurteurrena izan zelako urriaren 9an. Alaba Estiren partez.
- ◆ Zorionak **Esther Idiakezi** urriaren 7an urteak bete zituelako. Guraso, anaia Josu eta ahizpa Mariaren partez.
- ◆ Zorionak **Unai Arzeri** urriaren 11n 10 urte bete zituelako. Lagunen partez.
- ◆ Zorionak **ama** igandean urteak beteko dituzulako. Maialen eta aitaren partez egun ona pasa dezazula.
- ◆ Zorionak **Juan Mari eta Jaione**, zorionsuak izan zaitezte gauza guztien gainetik, Santa Eskean ibiltzen garan talde guztian partetik.



◆ Aupa pareja!
Ai **Aran**, orain arte "trae tu kabezita" eta hemendik aurrera ez daixala izan "aparta el kabezón". **Ru-per**, zaindu ondo gure txikixa. Zorionak eta muxu bana.



◆ Azkenean zure argazkia ikusten duzu! Astero astero begira eta oraingoan zure txanda da. Zorionak **Eñaut**, urriaren 20an lau urte beteko dituzulako. Familia osoaren partez.

◆ Zorionak **Jon Perez**-i urriaren 21ean 7 urte beteko dituelako. Gurasoen eta Ramses, Ainhoa eta Mi-



renen partez.



◆ Zorionak **Maite Postigori** hilaren 11an 11 urte bete zituelako. Familia osoaren partez, bereziki anaia Ai-



Bakea nahi izatea ez da nahikoa. Ekinaren ekinaz lortu behar dugu.



Joseba Egibar Juan

Jose Ibarretxe
Lehendakariako Hautagaia



Asko da egiteko daukaguna.

Bakea egiteak eta adiskidetzak elkarrizketa eta tolerantzia esan nahi dute. Eta hitz egitea eta elkar ulertzea dira ditugun arma bakarrak horretarako. Ideia guztiak lasai eztabaidatzeko garaia da, etorkizuna kontutan izanda, denon partehartzearekin bultzatuko dugun **bake-proposamen zehatza eta adiskidetzekoa** eginez. Irtenbideren bat badagoela sinesten badugu, aurkituko dugu. Horregatik, botoa emateaz gain zeozer gehiago behar dugu. Zure ilusioa alegia.

gofi

Irki


- ┃ Haurrentzako arropa
- ┃ Gaztetxoentzako arropa

Giza eskubideen enparantza, 1. Tel: 943 74 46 53

20. URTEURRENA

MULTIOPTICAS UZURI

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a




San Frantzisko, 21 · Tel: 943 74 03 59 · Elgoibar



Ostolaza, 7 · Tel: 943 19 21 92 · Deba

MALLORCAra
bidaia zozketatuko dugu



3 izarretako HOTElean aste
bete,
bi pertsonarentzat,
pentsio osoan.

1999KO UDAZBERRIA

Bonardi'98 bilduma



MULTIOPTICASEk,
gustu guztietarako
montura kolekziorik
zabal eta onena
eskaintzen dizu.



Milaka sariren zozke-
tan parte hartu ahal
izango duzu Bonardi
bildumako edozein
montura erosteagatik.

JUBILATUEN KANPAINA

URRIA - AZAROA 98

MULTIOPTICAS

BETAURREKO
BIFOKALAK
11.900

BETAURREKOAK
KRISTALEKIN
7.900

LENTE
PROGRESIBOAK
21.500



Lor itzazu
TRAVEL CLUB pro-
gramako
puntuek
MULTIOPTICAsen.



Ordaintzerako orduan abantaila ugari:
● MULTIOPTICAS kreditu txartela.
Dirurik gabe erosteko modurik errazena.
● 30,60 edo egunetan ordainketa egitea
eska dezakezu, inolako gaitzirik gabe.

